



2024ko XX(e)ko DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROA SORTZEN BAITA ETA ZENTROAREN LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEN BAITA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoen Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 21eko 4/2023 Legegintzako Dekretuak arau-esparru propioa ezartzen dute. Arau-esparru horri esker, hezkuntzari laguntzeko zerbitzuak izango dituen euskal eskola bat eratu ahal izango da, ikastetxeekin lankidetzan arituta hezkuntza-prozesuak hobetzeko. Zentzu horretan, 17/2023 Legeak 88. artikuluan hitzez hitz jasotzen duenari jarraikiz, «Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen oinarriko egiturak eta funtzionamendua Eusko Jaurlaritzaren erregelamendu bidezko garapenaren bidez arautuko dira».

Ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoak, hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen eginkizunak ezartzen ditu 18. artikuluan. Zerbitzu horiek aholkularitza emango dute, bai eta beharrezko laguntza teknikoa eta prestakuntzakoa ere, aniztasunari eta laguntza-premiei emandako erantzuna bat etor dadin dekretu horretan ezarritako printzipioekin. Zerbitzu horien jarduera-esparrua ikastetxe guztietara hedatzen da, eta, eskura dituzten baliabideen arabera, lehentasuna emango zaie funts publikoekin finantzaturako ikastetxeei.

Otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren bidez, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortu ziren, hezkuntzarako laguntza-zerbitzu gisa.

Ondoren, otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuaren bidez, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautu ziren, eta, horrela, Berritzeguneek beren gain hartu zuten curriculum-arloen eta Hezkuntza Sailburuordetzaren lehentasunezko jarduketa-eremuen buruzagitza.

Ordutik, aldaketa sozial eta ekonomikoen eraginez, beharrian eta sentsibilitate berriak sortu dira, eta hezkuntza-esparruan ere modu pertsonalizatuan heldu behar zaie horiei eta erantzun egokia eman. Hori dela eta, beharrezkoa da euskal hezkuntza-sistemari ematen zaion laguntza berrikustea, eskolak irakaskuntzaren kalitate, aukera-berdintasun eta hezkuntza-sistemaren eraginkortasun hobek izan ditzan.

Ikaskuntzako, berrikuntzako, aniztasunarekiko arretako eta hezkuntza-inklusioko politikak berrorientatzeko eta modu espezifikagoan jorratzeko premia hori 71/2021 Dekretuan islatu da — 71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena—, eta haren erakusgarri da, halaber, ukitutako zuzendaritzen eginkizunak birdefinituz horien antolamendua egokitu izana, gizartearen premiei hezkuntza-erantzun egokia emateko.

Azken hamarkadetako aldaketa sozialen ondorioz, errealitate berriei aurre egin behar diegu, eta hezkuntza-erronkei erantzuteko baldintza eta tresna egokiak diseinatu behar ditugu. Hona hemen erronkak: bizikidetzaren positiboa lehentasunezko ardatz gisa; migrazio-fluxuak, ikastetxeetako soziologia aldatu baitute; gure ikastetxeetako kulturartekotasuna eta aniztasunaren kudeaketa; familien eskari berriak; ikasleak eta konpetentzien garapena erdigunean jartzen dituen ikaskuntza; erronka demografikoa; eta ingurunea gero eta teknologikoagoa izateak dakartzen mehatxuak eta aukerak. Horregatik guztiagatik, administrazioaren eta ikastetxeen rola birpentsatu egin behar dira, ikastetxeei protagonismo handiagoa emateko eta administrazioaren eta ikastetxeen arteko erantzunkidetasun-akordioak sustatzeko.



2030erako Hezkuntza Ekintza Esparrua (“Kalitateko hezkuntza inklusibo eta bidezko baterantz, eta guztiontzako bizialdi osoko ikaskuntza baterantz”) UNESCOren 184 kidek onartu zuten Parisen, eta, horren bitartez, pertsonen bizitzak eraldatzeko baliabide gisa hartzen da hezkuntza. Zehazkiago, guztiontzako kalitateko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea proposatzen du. Konpromiso horren barruan, aitortzen da genero-berdintasuna garrantzitsua dela, eta, era berean, beharrezkoa dela kalitateko hezkuntza ematea, zeinak emaitzarik onenak eta bizialdi osoko ikaskuntzarako aukerak sustatuko dituen, testuinguru guztietan eta hezkuntza-maila guztietan.

Era berean, 2030erako Hezkuntza Agenda Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren funtsezko zatia da. Helburua da hezkuntzari buruzko 4. Garapen Jasangarriko Helburuaren 10 helmugak lortzea; hauek dira xede horietako batzuk: sexuen arteko berdintasuna eta inklusioa, hezkuntzan genero-desberdintasunak ezabatze eta ikasketa-maila guztietarako sarbide berdinzalea bermatzeko; pertsona kalteberentzako prestakuntza profesionala, desgaitasuna duten pertsonentzat ere bai; hezkuntza, haren bidez sustatzeko garapen jasangarria eta hiritartasun globala; eta, azkenik, ikasketa-ingurune eraginkorrak, seguruak, biolentziarik gabekoak eta inklusiboak.

Hori guztialortzeko, jarduketa-eremu eraginkor eta inklusiboagoak sortu behar dira, testuinguruan kokatutako aniztasunari erantzuteko, ikasleen premiak sortzen diren ingurunera lotuta. Eta ez soilik desgaitasun-kasuetan, zeina testuinguruko faktoreek definitzen baitute; baizik eta zailtasun-egoera guztietan, testuinguru naturalek esku-hartzearen eraginkortasuna errazten eta hobetzen baitute, eta eskola da testuinguru natural garrantzitsuenetako bat, familiarekin batera. Aniztasunarekiko hezkuntza-erantzunaren identifikazioari, ebaluazioari, esku-hartzeari eta monitorizazioari buruzko erabakiak ikasle eta irakasleengandik hurbilen dagoen instantzian hartzea arrakastaren bermea da.

Horretarako, besteak beste, ikastetxeek erantzun horrekiko gaitasunak indartu behar dituzte; bai eta inklusioan laguntzeko profesionalen profila eguneratu ere, erantzukizun berriak hartzeko; eta, azkenik, Hezkuntza Inklusioari Laguntzeko aholkularitzak espezializatu behar dituzte.

Espezializazio horren bidez, ezagutza-arlo baten garapen espezifiko eta trinkoagoa egiteaz gain, profesionalen antolaketa konplexuagoa lortzen da, eta modu efizienteagoan garatzen da hezkuntza-erantzuna, gero eta beharrezkoagoa baita. Ikastetxeek ikasketarako oztopoak baztertzeko autonomia eta parte-hartze handiagoa izateko, ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren aholkularitza-gaitasuna areagotzea, ikastetxe bakoitzak bere prozesua egin ahal izan dezan guztiontzako eskola eraikitzeko bidean.

Bestalde, aurrera egin behar da berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak eragin ditzaketen baldintza pertsonalak identifikatu, ebaluatu eta monitorizatzeko eta horietan esku hartzeko prozesuetan. Ezinbestekoa da neurogarapeneko nahasmenduen, jokabide-nahasmendu larrien edo zentzumen-desgaitasunen tratamenduko espezialistak edukitzea ikasleen, familien eta irakasleen laguntza-premiei erantzun onena emateko.

Era berean, haurtzaroan agertzen diren gaixotasun kronikoek eta osasun mentalari lotutako arazoan intzidentziaren gehikuntzak eragin nabarmena dute hezkuntzan, eta proposamen berrien beharra ekarri dute, esparru horietan eskumenak dituzten eta ikasle batzuen baldintza pertsonalei eragiten dieten beste erakunde sanitario eta sozial batzuk barne hartuko dituztenak.

Jarduketa horiek eta egungo eta etorkizuneko premiei heltzeko proposamen berriak Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren oinarria dira.



Planteamendu humanista horrek hezkuntzaren eztabaidari heldu behar dio garapen ekonomikoan betetzen duen erabilera-funtzioaz harago, eta justizia sozialeko balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza birplanteatu behar du, curriculum tradizionala zalantzan jarriz eta lortu nahi dugun gizartea (inklusiboa, modernoa, zabala, elkarrizketarako irekia, kritikoa, humanoa, demokratikoa eta jasangarria) eraikitzea ahalbidetuko duen curriculuma eraikiz.

Azaldutako guztiarekin bat etorritik, Euskadi Basque Country 2030 Agendak —ezinbesteko erreferentzia-tresnak izanda Eusko Jaurlaritzarentzat— honela definitzen du 4. helburua: “Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”. Helburu horren barruan, helmuga hauek jasotzen ditu: bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea; oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzeta-maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan; bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna); eleaniztasuna eskolan bultzatzea; eta modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea.

Testuinguru horretan, bizikidetzeta positiboa, inklusioarekin batera, Euskadiko hezkuntza-sistemaren egiturazko ardatz bihurtzen da; izan ere, ezinbesteko elementua da garapen sozial eta pertsonalerako, eta ikaskuntzak eta prestakuntza-arrakasta lortzeko. Horiek horrela, eskolak ongizate, konfiantza, segurtasun, onarpen eta inklusioko testuingurua sortu behar du, beharrezkoa baita adierazitako arrakasta errazteko. Horretarako, harremanak berdintasun-testuinguru batean ezarri behar dira, eta helburu eta proiektu komunak formulatu behar ditugu, hezkuntza-komunitatearekin batera erantzukizunak partekatuta, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza integrala lortzeko. Lortu nahi den kalitatezko hezkuntzak inklusioa sustatzen eta desberdintasuna gure gizartearen aktibotzat hartzen duten balioak garatzea bultzatzen du; halaber, esku hartzeko eredu integral eta malguak erabiltzean objektibatu behar da, bai eta metodologia aktiboak eta lankidetzakoak erabiltzean ere, zeinak kalitatezko hezkuntza-aukerak bermatuko baitituzte eta ikasleei aukera emango baitiete beren ikaskuntzaren partaide eta kudeatzaile izateko.

Berez positiboa den kontzeptu batez hitz egiten ari gara, ikasi behar den kontzeptu batez, eta eskola-testuinguruan nahitaez garatu behar denaz, gizarteratze-gune garrantzitsuenetako bat baita, elkarbizitzen ikasteak berekin dakarren etengabeko ikaskuntzaren prozesuan. Bizikidetzeta hauxe da: harremanak izatea norberarekin, besteekin eta ingurunearekin. Inor ez denez jakitun jaiotzen, elkarbizitzen ikasi egiten da. Eskolak ikaste-prozesu hori planifikatzeko aukera ematen digu.

Agerikoa da inguru horretan dauden arazo sozialek eragina dutela ikastetxeetako bizikidetzan. Ikastetxeak aintzat hartu behar du indarkeriaren fenomeno soziala. Mota askotako indarkeria dago, eta honako hauek ikus ditzakegu: jarrera disruptiboak, elkarren arteko harreman txarrak, behar bezala konpondu ez diren gatazkak, baita parte-hartzaile guztientzako suntsitzaileak izan daitezkeen jazarpen eta indarkeriazko jarrerak ere.

Hori ez da berria. Eskola-jazarpena beti egon da, gure artean dago, tinko, baina egun, ikerketa-lanari esker, aurrera egin dugu fenomenoaren kontzeptualizazioan. Gizarte-kontzientzia handiagoa izanda, halaber, ikaskideen arteko jazarpena gai garrantzitsua izatera igaro da, eta hezkuntza- eta gizarte-eremuan arduraren gehien sortzen duen gaietariko bat bihurtu, ikasleen garapen pertsonalean, sozialean eta ikasketa-garapenean dituen ondorio larriengatik. Ondorioz, eskolak eta hezkuntza-sistemak lehenetsi egin behar dute.



Helmuga horiek, beraz, hezkuntza-arloan eskuduna den sailaren ildo estrategiko bihurtzen dira, eta, beraz, baita haren laguntza-zerbitzuen eta ikastetxeen ildo estrategiko ere.

Gainera, gure herriak badu berezitasun linguistiko bat, eta, beraz, erronka honi aurre egin behar diogu: hezkuntza-esparru eleaniztun eta kulturartekoaren alde egitea, euskara ardatz hartuta. Beharrezkoa da euskarak hezkuntza-sistemaren erreferentzia-hizkuntza gisa duen eginkizuna indartzea eta ikasleek, irakasleek eta hezkuntza-komunitate osoak euskara aktiboki erabil dezaten bultzatzea, eta, orobat, ikasleei konpetentzia ematea eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren arloan, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa, beste hizkuntza baten edo biren gaineko ezagutzak eta gizarte eleaniztun eta kulturazintun batean elkarrekin bizitzeko gaitasuna bermatuko dituen.

Horregatik guztiatik, egungo eta datozen hamarkadetako erronkei erantzuteko, gobernanta-eredu berriak sustatu behar ditugu gure hezkuntza-sisteman: “eredu erantzunkidea eta deszentralizatuagoa, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa sustatuko duena, hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatuko dituen, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola-erakunde berriak eratuko dituen, ikasle guztien ikaskuntza sustatuko duena eta ikasleak beren ikaskuntzaren subjektu aktibo bihurtuko dituen”.

Arestian azaldutakoaren ildotik, beharrezkotzat jotzen da inklusioari laguntzeko zerbitzuen gobernanta-esparrua eguneratzea, haren definizioari, egiturari eta antolaketari dagokienez, aipatutako helmugei erantzun diezaieten eta ikasle guztientzako kalitateko eskola inklusiboa garatzea berma dezaten.

Dekretu honek lau kapitulu ditu, guztira hogeita sei artikulua, zazpi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Horrenbestez, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan adierazitako izapideak egin ondoren, Euskadiko Hezkuntza Kontseiluari entzun ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluak 2024koaren(e)ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:



I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. – Sorrera eta izaera.

1.– Dekretu honen helburua da Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa sortzea, hezkuntzarako laguntza-zerbitzua izan dadin, eta, horrekin batera, Zentroaren lanpostuen zerrenda onartzea.

2.– Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroarekin elkarrekintzan lan egingo du, zerbitzu partekatuen lankidetzeta-eredu baten bidez, eta Zonako Berritzeguneen eta Berritzegune Nagusiaren eginkizunak hartuko ditu bere gain, hezkuntza-inklusioa, bizikidetzeta eta aniztasunaren kudeaketari dagokionez.

3.– Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa hezkuntza-arloko sail eskudunaren barnean aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloko eskumena duen zuzendaritzara atxikirik geratzen da modu organikoan. Hala, zuzendaritza horren menpe geratzen da organikoki eta funtzionalki dekretu honetan zehazten diren eginkizunen garapenerako.

2. artikulua. – Jarduketa-eremua.

Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren jarduketa-eremua funts publikoekin mantendutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikasketen ikastetxe guztietara zabalduko da, lanbide-heziketako ikastetxeak alde batera utzita.

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak.

Dekretu honen bidez sortutako Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak honako printzipio hauen arabera gidatuko du ikastetxeei eta profesionalei eman beharreko erantzuna:

- a) Euskadiko hezkuntza-sistema eraldatzeko tresna izatea.
- b) Iraultza teknologikoaren eta eraldaketa sozialen, eta ingurumeneko erronken eta erronka epidemiologikoen edo pandemikoen ondorioz ikastetxeetako ikasle, irakasle eta hezkuntzako langileei sortzen zaizkien berehalako premia aldakorrei erantzun egokituak, arinak eta eraginkorrak ematea.
- c) Ikastetxeetako barne antolaketa eta kudeaketako egitura indartzen laguntzea.
- d) Erronka berriak aurretiaz, malgutasunez, moldagarritasunez, erresilientziaz eta eraginkortasunez onartzea, berrikuntza iraunkorraren bidez eta hezkuntza bikaintasuna lortzeko.
- e) Hezkuntza-eremuko esperientzia konparatu arrakastatsuen sentsore edo detektagailu gisa jardutea, eta, Euskadiko hezkuntza-sistemako ikastetxeen bitartez, esperientzia horiek nazioartean zabaltzeaz arduratzea.
- f) Eredu konparatu aurreratuenak oinarri hartuta, ikasketa-metodologia berriak etengabe garatzea.
- g) Ikastetxeetan esperientzia pilotuak sustatzea, eta esperientzia horiek aztertu eta ebaluatzea Euskadiko hezkuntza-sistema osora zabaltzea proposatu aurretik.
- h) Euskadiko hezkuntza-sistemak eskola ekitatiboa eta bikaina berma dezan lan egitea eta helburu hori sustatu eta babestea, eskola-komunitatearen jarduketa guztietan gidarizat hartuta inklusioa, aukera-berdintasuna eta diskriminazio-eza.
- i) Ikastetxeek ikasle guztien parte-hartzea, ikaskuntza eta arrakasta esparru inklusibo batean sustatzen dituzten hezkuntza-komunitate kolaboratiboak eraikitzeke ahalegina babestea.



- j) Irakasleei aholkularitza ematea, ikasle guztiek funtsezko kompetentzien eta kompetentzia espezifikoaren ahalik eta mailarik altuena eskura dezaten, ikasteko eta parte hartzeko oztupoak ezabatuz trazarik egon ez dadin ikaslearen proiektu pertsonalak garatzeko.
- k) Ikasle guztiei zuzendutako berrikuntza-proiektuen garapena sustatzea, proiektuetan erabilitako metodologiak eta ikuspegiak aniztasunarekiko erantzun inklusiboa bermatzen duten heinean.
- l) Hezkuntza-testuinguru eleaniztun batean, euskara indartu eta babestea gure hizkuntza propioa den heinean, eta euskal kultura garatzea, horrekin batera aldi berean landuta hezkuntza-ingurunearen eta ingurune globalaren aberastasun kulturazintzunarekiko errespetuan eta estimuan oinarritutako balioak.

4. artikulua. – Xedek eta eginkizunak.

1.– Honako hauek dira Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren xedek:

- 1. Hezkuntza-inklusioko sustatzea eta laguntzea ikastetxeetako aniztasunari ematen zaion erantzunak ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza bermatu dezan, hartara ikaslearen bizitzarako kompetentziak garapen-maila gorenera iristeko, edozein direla ere haien inguruabar pertsonalak.
- 2. Bizikidetzaren positiboa izatea –zentzurik zabalenean– inklusioa eta ekitea bultzatzeko hezkuntza-politiken eta -programen ardatz.
- 3. Hezkuntza-komunitate osoaren ongizate emozionalera bideratutako kompetentziak eskuratzea sustatzea, ikasgelan ikaslearen eta irakaslearen arteko segurtasun- eta konfiantza-giroa sortzearen bidez.
- 4. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan hezkidetzaren eredu bat sustatzea.
- 5. Ikasle guztien irispidea, iraunkortasuna, bilakaera eta akreditazioa bermatzea, baita gure hezkuntza-sisteman sartu berri direnena eta atzerriar jatorriko edo kalteberatasun-egoeran dauden familiaen ere, garapen pertsonal, sozial eta akademikoaren ingurune, giro eta oinarri bizikidetzaren izango den eremu batean.

2.– Xede horiek lortzeko, eginkizun hauek bete behar dira:

- a) Aniztasunari erantzuna emateko araudia eta irizpideak aplikatzea, normalizazio eta inklusio printzipioak kontuan izanda.
- b) Ikastetxeei aholkularitza ematea eta horiekin lankidetzan jardutea hezkidetzaren esparru inklusibo batean ongizate emozionalera bideratutako bizikidetzaren positiboko espazio seguruak sortzeko.
- c) Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta tresnak ematea bizikidetzaren planak, hezkidetzaren proiektuak eta ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako proiektuak garatzeko.
- d) Eskola inklusiboaren garapena sustatzea, ikasle guztien parte hartu eta ikasteko prozesu gisa, eta ikastetxeetako hezkuntza-proiektuen eraldaketa sustatzea metodologia eta jardunbide inklusiboaren bidez.
- e) Ikastetxeei aholkularitza ematea ikasteko eta parte hartzeko oztupoak identifikatzeko eta ezabatzeko prozesuetan, ikasle guztien garapen integrala bermatu dezaten, haien garapen kompetentzial, emozional eta sozial osoari erreparatuta.
- f) Ikastetxeei unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-mailako irakasleak prestatzen laguntzea, proiektu inklusiboak garatzeko.
- g) Irakasleei eta inklusioan laguntzen duten profesional ez-irakasleei prestakuntza eta aholkularitza



- ematea, beren eginkizunak betetzen dituzten ikastetxeetako irakasle-taldearekin lankidetzan.
- h) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko, unibertsitateekiko, beste administrazio batzuekiko eta hirugarren sektoreko entitateekiko lankidetzatzea.
 - i) Hezkuntza-sisteman aplikatu eta zabaltzeko materialak eta argitalpenak prestatzea.
 - j) Berrikuntza pedagogiko eta teknologikoko profesionalen prestakuntza sustatzea, unibertsitate-esparruarekin eta entitate publiko zein pribatuekin lankidetzan, eta prestakuntza hori ikastetxeetako profesionalei zuzentzea.
 - k) Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroarekin lankidetzan aritzea.

5. artikulua. –Egoitzak.

1.– Inklusioa, Bizikidetzatza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren egoitza nagusia Bilbon egongo da, eta beste sei egoitza izango ditu Durangon, Leioan, Barakaldon, Donostian, Zarautzen eta Gasteizen.

2.– Egoitza bakoitzean, hezkuntzaren arloan eskuduna den saileko administrazio orokorreko funtzionario hauek egongo dira:

- a) Administraria.
- b) Ikastetxe publikoen ordenantza.

3.– Era berean, egoitza nagusian idazkari administrari bat ere egongo da, eta hura izango da Inklusioa, Bizikidetzatza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko idazkaritzako eta kudeaketa administratiboko burua.

4.– Eginkizun horiek esleituta izango dituzten lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendaren barruan egongo dira, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari atxikita.

6. artikulua. – Ikastetxeen zonakatzea.

1.– Inklusioa, Bizikidetzatza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren eraginpeko geografia-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa izango da. Hala ere, Zentroaren eginkizunen garapena optimizatzeko, esku hartzeko zonak eta horiek barne hartzen dituzten eskola-bilguneak finkatu dira, III. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz. Zona horiek aldatu edo egokitu ahal izango dira, ezarritako urteko plangintzaren arabera.

II. KAPITULUA: INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROAREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA



7. artikulua. – Antolamendu-printzipioak.

1.– Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa antolaketako printzipio hauen arabera eratuko da: hierarkia, profesionaltasuna, parte-hartzea, planifikazioa, espezializazioa, taldeko lana, emaitzen ebaluazioa, genero-berdintasuna, eskariei emandako erantzuna eta etengabeko hobekuntza.

2.– Aholkulariek, beren egitekoak betetzeko, haientzat guztientzat orokorrak diren jarduera batzuk egingo dituzte, baita jarduera espezializatu batzuk ere.

8. artikulua. – Kudeaketa-sistematika.

1.– Azaldutako xedek lortzeko, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak prozesuen arabeko kudeaketa-sistema bat baliatuko du, etengabeko hobekuntzan eta berrikuntzan oinarritua.

2.– Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak Urteko Kudeaketa Plan bat izango du (hemendik aurrera, UKP), aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioren arloan eskuduna den zuzendaritzako arduradunak onartutakoa.

3.– UKPan garatuko da hezkuntzaren arloan eskuduna den sailburuordetzaren Plan Estrategikoaren betetze-maila.

4.– UKPak alderdi hauek bilduko ditu gutxienez:

- a) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroari esleitutako jarduteko printzipioak betetzeko, planaren epealdian garatzen diren helburuak.
- b) Planifikatutako helburuak lortzeko ekintzak.
- c) Horien aurrerapena ikuskatzeko ekintzen kronograma eta planifikazioa.
- d) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren Prestakuntza, Komunikazio eta Digitalizazio Plana.
- e) Helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko adierazle gakoak.
- f) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren Gastuen Urteko Aurrekontua.

5.– Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren jarduera prozesuetan eta/edo proiektuetan oinarrituko da, eta horien bidez deskribatu eta dokumentatuko da zentroaren jarduera; prozesu eta/edo proiektu horiek jarduera-kate bat dira, eta proiektu edo zerbitzu jakin bat sortzen ari den artean balio erantsia ematen dute.

9. artikulua. – Antolaketa-egitura.

1.– Bere eginkizunak betetzeko, zuzendari bat eta arloko arduradunak izango ditu Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak. Honako jarduketa-eremu hauek osatuko dute zentroaren egitura:

- a) Inklusioari laguntzeko arlo orokorra: Ikasteko aparteko zailtasunak, arreta-defizita eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN) eta goi-mailako gaitasunak goiz hautemateko, ebaluatzeko eta erantzun egokia emateko.



- b) Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloa: Hezkuntza-premia bereziak eragiten dituzten eta intentsitate handiko laguntzen beharra dakarten neurogarapenaren nahasmenduak identifikatu eta ebaluatzeko eta alderdi horiei erantzuna emateko.

Arlo horretan honako espezialitate hauek izango dira:

- Irisgarritasun sentsoriala eta garapen motorraren nahasmenduak eta horiei lotutako afekzio medikoak.
 - Portaeraren eta garapen pertsonalaren nahasmenduak.
 - Garapen intelektualaren nahasmenduak (GIN) eta autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN).
- c) Ikasketa eta programa integratuen arloa: Politika eta praktika inklusiboak aztertzeke, eta, horrekin batera, esku-hartze programa integratuak sortu, finkatu eta hobetzeko proposamenak garatzeko.
- d) Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloa: Ikastetxeei bizikidetzaren positiboa, ongizate emozionala, hezkidetzaren eta ikasle guztien eskola-arrakasta garatzeko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza emateko.
- e) Kudeaketa operatiboaren arloa.

2.– Arlo bakoitzak arduradun bat eta zenbait aholkularitza espezializatu izango ditu, lantaldeetan antolatuta.

3.– Halaber, Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak zerbitzu-eginkizunetarako deialdiak egin ahal izango ditu, lanpostu bati berariaz esleitu gabeko proiektuak abian jartzeko eta eginkizun bereziak betetzeko. Deialdi hauen bidez hautatutako langileek laguntzaile izaera izango dute arau ezartzen diren baldintzetan unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuordetzaren ildo estrategikoekin zerikusia duten zailtasun bereziko edo kualifikazio bereziko proiektu zehatzak gauzatzeko. Kasuan kasurako egingo diren deialdi horietan, alderdi hauek zehaztuko dira: zein diren egin beharreko lanak, zer betekizun zehatz dituzten eta zer gaikuntza profesional eskatzen den. Zerbitzu-eginkizun horiek berritzeko aukera egongo da egokitutako proiektua amaitu arte, baina aldez aurretik, egindako lanari buruzko aldeko txostena beharko da.

10. artikulua. – Zuzendaria.

1.– Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendariak bere gain hartuko du zentroaren funtzionamenduaren erantzukizun gorena, bai eta Urteko Kudeaketa Planean ezarritako helburuak betetzeko konpromisoa ere.

2.– Zuzendariaren lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-kidego bateko karrerako funtzionario batek beteko du.

3.– Aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak izendatuko du Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaria.

4.– Zuzendariak eginkizun hauek izango ditu:



- a) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren antolaketari, funtzionamenduari eta betearazpenari lotutako alderdiak kudeatzea.
- b) Aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskuduna den zuzendaritzari gastuen urteko aurrekontua proposatzea, gastuak onartzea eta ordainketak ziurtatzea.
- c) Aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskuduna den zuzendaritzari bidaltzea kudeaketa-kontuak, kontu horiek kontsolidatzeko eta aurrekontu-ekitaldiari dagozkion itxierako eta likidazioko kontabilitate-betekizunak modu zentralizatuan betetzeko, ekonomia eta ogasunaren arloan eskuduna den sailak urtero ezartzen dituen arauen arabera.
- d) Urteko Kudeaketa Planaren zirriborroa prestatzea Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak dituen arloetako arduradunekin lankidetzan, aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren eremuan eskuduna den zuzendaritzak ezarritako irizpideei jarraikiz, azken horrek onetsi behar baititu.
- e) Urteko Kudeaketa Plana ebaluatzea Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak dituen arloetako arduradunekin lankidetzan, eta ebaluazio-txostena aurkeztea aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskuduna den zuzendaritzari, hark onesteko.
- f) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroari atxikitako langileen buru izatea eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzea.
- g) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko arlo bakoitzaren lanak gainbegiratzea eta koordinatzea.
- h) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak gauzatutako ekintzei buruzko txostenak aurkeztea aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskuduna den zuzendaritzari.
- i) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren Urteko Kudeaketa Plana betetzeari buruzko nahitaezko txostenak egitea.
- j) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren ordezkari nagusia izatea izaera bereko organismoekiko harremanetan, Estatuan zein Europar Batasunean, bai eta munduan ere, metodologiak, proiektuak, esperientziak eta lan egiteko sistematikak konparatzeko, ezagutarazteko eta hobetzeko.
- k) Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroarekiko interakzio- eta lankidetzaharremana sustatzea, dagozkien helburuak lortzeko.
- l) Zaintza teknologikoa egitea, hezkuntza-berrikuntzan, -inklusioan eta -teknologian egindako aurrerapenei buruzko informazioa jasotzeko, kanpotik eta Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentrotik bertatik.
- m) Aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren arloan eskuduna den zuzendaritzaren titularrak eskatutako gainerako ekintzak egitea.

11. artikulua. – Arloko arduraduna.



1.– Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren arloetako arduradunek beren gain hartuko dute dagokien arloaren funtzionamenduari erantzukizun goren, bai eta Urteko Kudeaketa Planaren (UKP) dagokien arloaren jarduketara-esparruan ezarritako helburuak betetzeko konpromisoa ere.

2.– Arloko arduradunaren lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-kidego bateko karrerako funtzionario batek beteko du.

3.– Arloko arduraduna zuzenean Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendariaren mendean egongo da, eta aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioren arloan eskuduna den zuzendaritzako titularrak izendatuko du, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzak proposatuta, izendapen askearen bidez.

4.– Arloko arduradunak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzari laguntzea ezartzen dituen estrategiak hedatzen.
- b) Dagokion arloaren jarduna gidatzea, koordinatzea eta bideratzea, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzak ezartzen dituen irizpideen arabera.
- c) Arloaren UKPa prestatzea, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzak ezartzen dituen irizpideen arabera, eta plana betetzen dela bermatzea.
- d) Dagokion arloko eginkizunak eta langileak sustatzea eta koordinatzea.
- e) Dagokion arloko UKPa gauzatzen dela kontrolatzea eta ebaluatzea.
- f) Dagokion arloko koordinazio-bileren deialdia egitea eta horiek gidatzea, gai-zerrenda ezartzea, kudeaketaren berri ematea eta egiten diren proposamenak jasotzea.
- g) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzari proposatzea bere eskumeneko esparruarekin zerikusia duten zentroen aholkularitzaren eta prestakuntzaren eremuko eskariak.
- h) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzak ezartzen dituen koordinazio-bileretan parte hartzea.
- i) Urteko Kudeaketa Planaren arabeko lan-prozesuak ezartzea eta dagokion arloko profesionalak koordinatzea, beren eginkizunak betetzeari dagokionez.
- j) Dagokion arloko langileak, espazioak eta baliabide materialak kudeatzea, aintzat hartuta Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren prestakuntza-, komunikazio- eta digitalizazio-planak.
- k) Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, Urteko Kudeaketa Plana prestatu eta ebaluatzeko.
- m) Estatuko eta nazioarteko unibertsitateekin eta kanpoko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.



- n) Arloarekin zerikusia duten kongresu eta konferentzietan parte hartzea, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzak emandako gidalerroei eta UKPan ezarritako lan-ildoek jarraituz.
- ñ) Zaintza teknologikoa egitea, bere jarduketara-eremuari dagokionez hezkuntza-berrikuntzan, -inklusion eta -teknologian egindako aurrerapenei buruzko informazioa jasotzeko, kanpotik eta arlotik bertatik.
- o) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzak eskatutako gainerako ekintzak gauzatzea.

12. artikulua. – Zuzendaritza-taldea.

1.– Zuzendaritza-taldea Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendariak eta zuzendariak esleitutako arloko arduradunak osatuko da, aniztasunaren eta hezkuntza-inklusionaren esparruan eskuduna den zuzendaritzak onespenez eman ondoren.

2.– Hauek dira zuzendaritza-taldearen eginkizunak:

- a) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzari laguntzea esleituta dituen eginkizunak betetzen.
- b) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, Urteko Kudeaketa Plana prestatzeko.
- c) UKParen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- d) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun egitea.

13. artikulua. – Lantaldeak eta taldearen koordinazioa.

1.– Inklusioari laguntzeko arlo orokorra, Inklusiorako laguntza espezifikoren arloa, Ikasketa eta programa integratuen arloa eta Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloa lantaldean egituratuko dira.

2.– Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko lanpostuei atxikitako pertsonak osatuko dituzte lantaldeak.

3.– Dekretu honen 5. artikuluan adierazitako egoitza guztietan aholkulari bat egongo da. Aholkulari horrek, bere lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeaz gain, egoitzako lantaldea koordinatuko du. Arloko arduradunak izendatuko du taldearen koordinatzailea, lidergo-gaitasunaren eta lantaldeak kudeatzeko gaitasunaren irizpideei jarraituz.

4.– Talde bakoitzak II. eranskinean adierazitako lurralde-eremuan beteko ditu bere eginkizunak.

14. artikulua. – Taldeen koordinatzaileen eginkizunak.

1.– Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko aholkulari gisa eta norbere taldeko kide gisa dagozkien eginkizunak gain, eginkizun hauek izango dituzte:

- a) Taldearen esparruan informazio-trukea bermatzea.



- b) Ezarritako lan-metodoak eta -prozedurak ezartzeari buruzko aholkularitza ematea.
- c) Taldearen zereginak osatzen dituzten alderdiak ordenatzea, esleitutako zereginak betetzen direla ziurtatzeko.
- d) Taldekideak kooperaziora bultzatzen eta kohesioa eta talde-espirtua errazten duen lan-giroa sortzen laguntzea.
- e) Taldearen bilerak prestatzea eta horietan moderatzaile gisa aritzea, arloko koordinatzaileak aurreikusitako urteko plana betetzeko.
- f) Arloko koordinatzaileak aurreikusitako koordinazio-bilera eta -saioretan parte hartzea.
- g) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun burutzea.

15. artikulua. – Inklusioari laguntzeko arlo orokorra.

1.– Inklusioari laguntzeko arlo orokorrak lotura du honako hauek detektatu, ebaluatu eta horiei erantzutearekin:

- a) Ikasteko aparteko zailtasunak.
- b) Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN).
- c) Goi-mailako gaitasunak.
- d) Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmenduak.
- e) Mugako gaitasun intelektuala.
- f) Heldutasun-atzerapena.

2.– Arlo honetako lantaldeek eginkizun hauek dituzte:

- a) Ikastetxeetako orientabide psikopedagogikoko taldeekin lankidetzan aritzea berariazko laguntzaren premia duten ikasleen premiak identifikatu eta ebaluatzeko eta familiei orientabidea emateko.
- b) Ikastetxeetako profesionalek aniztasunari erantzun inklusiboa emateko egiten dituzten jarduketak sustatzea eta horietan laguntzea, baliabide propioak eta komunitatearen baliabideak mobilizatuz, behar diren laguntzak bermatzeko.
- c) Aginduzko baheketa-prozesuen garapenean orientazioa ematea eta ebaluazio psikopedagogikoa eta esku hartzeko proposamena prestatzen laguntzea, bai eta horiek ezartzeko beharrezkoa den laguntza ematea ere.
- d) Berariazko aholkularitza ematea ikasteko aparteko zailtasunen, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduaren (ADHN) eta goi-mailako gaitasunen detekzio goiztiarrari eta horiei erantzuteari buruz. Kategoria horretan sartzen dira hizkuntzari eta/edo komunikazioari, mugako gaitasun intelektualari eta heldutasun-atzerapenari lotutakoak.
- e) Aholkulari gisa parte hartzea dagokion lurralde-eremuko Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldean, eta programa horretan integratuta dauden eta ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleen jarraipena egitea.
- f) Esku hartzeko prozesuak garatzeari buruz aholku ematea, eta aniztasuna ikasgelako programazioaren abiapuntutzat hartzen duten estrategiak sustatzea.
- g) Berariazko laguntza-baliabide pertsonalak behar bezala eta malgutasunez erabiltzeko proposamenak egitea eta aholkua ematea.
- h) Laguntza-premien balorazioaren ondoriozko eta ebaluazio psikopedagogikoaren ondoriozko



txostenak egitea, betiere taldeko aholkularitzek egin badituzte balorazioak eta ebaluazioak. Era berean, hezkuntza-administrazioak, bere eskumenen eremuan eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eskatzen dizkien txostenak egitea.

- i) Hezkuntza-administrazioak ezarritako aholkularitza-prozesuei jarraitzea, ebaluazio psikopedagogikoari buruzkoa barne.
- j) Ikasleen jarduketa-plan pertsonalatupei buruzko aholkularitza ematea eta haien jarraipena egitea, baldin eta ikasle horiek beren premiei egokitutako esku-hartze pedagogikoa behar badute nahiz eta berariazko laguntza-baliabide pertsonalak eduki ez.
- k) Bere eskumeneko arloetan laguntzeko profesional espezifikoen prestakuntzarako orientabidea eta lankidetzaren ematea, inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloko profesionalekin lankidetzan eta, betiere, ikastetxeetako irakasle aholkularien eta orientatzaileen laguntzarekin.
- l) Beren jarduketak koordinatzea inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloko eta ikasketa eta programa integratuen arloko aholkularitzekin.
- m) Beren jarduketak sistematikoki koordinatzea aldi berean esku hartzen ari diren beste eragile komunitario, sozial eta sanitario batzuekin, izan aldizkako saioen bidez edo arreta integratuko programen esparruan.
- n) Beren jarduera profesionalaren esparruan egiten dituzten jarduketaren kontrol sistematikoa izatea, beren garapen profesionala errazteko eta aholkularitza-prozesuetan beren esperientzia erabilgarri jarri eta hobekuntza-proposamenak egiteko.

16. artikulua. – Inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloa.

1.– Inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloak barnean hartzen du intentsitate handiko laguntza-premiak dakartzaten neurogarapenaren nahasmenduak identifikatu eta ebaluatzea eta horiei erantzutea.

2.– Inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloak espezialitate hauek hartuko ditu barnean:

- a) Irisgarritasun sentsoriala eta garapen motorraren nahasmenduak eta horiei lotutako afekzio medikoak: Aholkularitza eta lankidetzaren, garapen motorraren nahasmenduek eta horiei lotutako afekzio medikoen eta oztopo sentsorialekin (entzumenekoak eta ikusmenekoak) eragindako berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak hautemateko, diagnostikatzeko eta horiei erantzuteko.
- b) Portaeraren eta garapen pertsonalaren nahasmenduak: Portaeraren eta garapen pertsonalaren nahasmenduek eragindako ikasteko eta parte hartzeko oztopoak identifikatzeko, diagnostikatzeko eta horiei erantzuteko aholkularitza eta lankidetzaren.
- c) Garapen intelektualaren nahasmenduak (GIN) eta autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN): Aholkularitza eta lankidetzaren, garapen intelektualaren nahasmenduek eta autismoaren espektroko nahasmenduek ikasteko eta parte-hartzeko prozesuetan eragiten dituzten oztopoak identifikatzeko, diagnostikatzeko eta horiei erantzuteko.

3.– Inklusiorako laguntza espezifikokoaren arloko taldeek eginkizun hauek dituzte:

- a) Intentsitate handiko neurriak eta laguntza eman behar izatea dakartzaten oztopo sentsorialen, motorren, kognitiboen eta psikikoen ondoriozko berariazko laguntza-premiak identifikatzen eta



ebaluatzen laguntzea orientabide psikopedagogikoko taldeei (motako horretako oztopoak dira desgaitasun intelektual larria, moderatua edo arina, desgaitasun motorra, sentsoriala — ikusmenekoa eta entzumenekoa—, autismoaren espektroko nahasmenduak eta horiei lotutako desgaitasun intelektual moderatua edo arina, portaera-nahasmendu larriak eta horiei lotutako beste komorbilitate batzuk).

- b) Ebaluazio psikopedagogikoa egitea, eta esku hartzeko proposamena egin eta hura ezartzeko beharrezkoak diren laguntzak ere proposatzea.
- c) Ikasle horien familiei beren seme-alaben hezkuntzari buruzko orientabidea ematea.
- d) Beren premiei egokitutako esku-hartze pedagogikoa behar duten ikasleen jarduketa-plan pertsonalizatuei buruzko aholkularitza ematea eta jarraipena egitea.
- e) Esku hartzeko prozesuak garatzeari buruz aholku ematea, eta aniztasuna ikasgelako programazioaren abiapuntutzat hartzen duten estrategiak sustatzea.
- f) Berariazko laguntza-baliabide pertsonalak behar bezala eta malgutasunez erabiltzeko proposamenak egitea eta aholkua ematea.
- g) Laguntza-premien balorazioaren ondoriozko eta ebaluazio psikopedagogikoaren ondoriozko txostenak egitea, betiere arlo horretako aholkularitzek egin badituzte balorazioak eta ebaluazioak. Era berean, hezkuntza-administrazioak, bere eskumenen eremuan eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eskatzen dizkien txostenak egingo dituzte.
- h) Laguntza Intentsiboko Programetan eta Zerbitzu Integratuetako Programetan (Arreta Goiztiarrekoa barne) integratutako ikasleen jarraipena egitea, betiere ikastetxeetako irakasle aholkulariekin eta orientatzaileekin lankidetzan.
- i) Helduarora igarotzeko programen jarraipena egitea.
- j) Irakasle diren hezkuntzako profesionalak (Pedagogia Terapeutikoko irakasleak eta Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak) prestatzea, inklusiorako laguntza orokorraren arloarekin lankidetzan, bai eta hezkuntzako profesional ez-irakasleak ere, talde espezifikoetara badaude.
- k) Ikastetxeei, irakasle-taldeei eta hezkuntza-zerbitzuei aholkularitza eta prestakuntza ematea, kontuan hartu diren ikasleen premiei erantzutea erraztuko duten antolamendu- eta metodologia-irizpideei buruz.
- l) Beren jarduketak koordinatzea inklusioari laguntzeko arlo orokorreko eta ikasketa eta programa integratuen arloko aholkularitzekin.
- m) Beren jarduketak sistematikoki koordinatzea aldi berean ikasleekin esku hartzen ari diren beste eragile komunitario, sozial eta sanitario batzuekin.
- n) Aholkulari gisa parte hartzea, hala badagokio, dagokion lurralde-eremuko Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldean, eta hezkuntza-premia bereziak eragiten dituzten eta intentsitate handiko laguntzen beharra dakarten neurogarapenaren nahasmenduak dituzten eta programa honetan integratuta dauden ikasleen jarraipena egitea.
- o) Beren jarduera profesionalaren esparruan egiten dituzten jarduketan kontrol sistematikoa izatea, beren garapen profesionala errazteko eta aholkularitza-prozesuetan beren esperientzia erabilgarri jarri eta hobekuntza-proposamenak egiteko.



17. artikulua. – Ikasketa eta programa integratuen arloa.

1.– Ikasketa eta programa integratuen arloa politika eta jardunbide inklusiboen azterketarekin eta balorazioarekin lotuta dago, eskola inklusibo bat eraikitzeke prozesua bideratzen lagunduko duen informazioaren eta datuen analisiaren bidez; arlo hau lotuta dago, halaber, esku hartzeko programa integratuak sortu, finkatu eta hobetzeko proposamenak garatzearekin ere.

2.– Arlo horrek eginkizun hauek ditu:

- a) Hezkuntza-jardunbide inklusiboetan aurrera egiteko estrategiak garatzea.
- b) Guztion ikaskuntza lortzeko ikastetxeen jardunbiderik egokienak zein izan daitezkeen aztertu eta horiek gauzatu eta zabaldu daitezkeen sustatzea.
- c) Erantzun inklusiborako lan-prozesuak eta -prozedurak garatzea hezkuntzari laguntzeko zerbitzuetatik.
- d) Informaziorako eta dokumentuen kudeaketarako sistemak sortzea.
- e) Aldizka planifikatzen diren proiektu estrategikoen edo eskola inklusiboa garatzeko proiektuen garapena koordinatzea.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateekin lankidetzan aritzea, modu egituratu eta sistematikoan.
- g) Prozesuei, plangintzari eta kontrolari buruzko proposamenak aztertzea eta egitea, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren eskumenen eta eginkizunen eremuan.
- h) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko beste arloei prestakuntza-edukiak proposatzea.
- i) Programak integratzeko filosofiari jarraitzen dioten programak aztertzea, bai hezkuntza-esparruan, bai osasunaren eta gizartearen esparruan.
- j) Plan eta jarduketak integratuak diseinatzeke eta ezartzeko proposamenak garatzea, beste erakunde edo sistema batzuekin lankidetzan.
- k) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan gauzatzen diren sailaren programak edo jarduketak koordinatzea. Besteak beste, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak, ospitaleko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroak eta arreta goiztiarreko lantaldea.
- l) Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroak eta arreta goiztiarreko lantaldea arlo horren mende egongo dira, beste erakunde batzuekin partekatutako zerbitzua den aldetik. Zentro horietako ikasleei jarraipena egitea arloaren eginkizunetatik kanpo geratzen da.
- m) Kronikotasunari eta osasun mentalari erantzun integratua emateko proiektuak gauzatzean, azterlanak egin eta aholkuak ematea, inklusiorako laguntza espezifikoaren arloarekin lankidetzan.
- n) Prozesuei, plangintzari eta kontrolari buruzko proposamenak aztertzea eta egitea, Aniztasunaren eta Inklusioaren Arloaren eremuan.
- o) Aniztasunaren eta Inklusioaren Arloko programetarako prestakuntza-edukiak proposatzea.

**18. artikulua. – Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloa.**

1.– Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloak eginkizun hauek ditu:

- a) Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza, protokoloak eta tresnak ematea, berdinen arteko tratatu txarrei, eskola-jazarpenari eta portaera suizidari buruzko prebentzio-jarduketak egin ditzaten.
- b) Ikastetxeak bizikidetzaren positiborako eta balizko jazarpen-egoeren aurrean tolerantziarik gabeko espazio seguruak izan daitezen laguntzea, eta helburu hori lortzeko proiektuak zuzentzea eta sustatzea.
- c) Ikasleen ongizate emozionala lortzen laguntzea, eta, horretarako, curriculum sozio-emozional propioa garatzea.
- d) Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza, protokoloak eta tresnak ematea, hezkidetzako eskola-eredua bultzatzeko.
- e) Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezatela bultzatzea.
- f) Mekanismoak martxan jartzea indarkeria matxista prebenitu, era goiztiarrean detektatu eta hari erantzun efikaza emateko.
- g) Proiektuak sustatzea zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleei zuzenduta, eskola-arrakasta hobetzeko eta bizitzarako konpetentziak hobeto garatzeko, ikasleekin planteamendu inklusibo batetik esku hartuta.
- h) Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta laguntza ematea, gure sisteman sartu berri diren ikasleei eta familia atzeritarreko ikasleei hezkuntza-sisteman sartzen eta bertan irauten laguntzeko jarduerak gauzatu ditzaten, bai eta, jatorrizko kulturak aintzat hartuta, beren aurrerapen akademikoa, pertsonala eta profesionala ahalbidetzeko ere.
- i) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, unibertsitateekin eta beste administrazio batzuekin laguntza eta lankidetzaren bultzatzea.
- j) Ataleko gainerako arloekin eta Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko beste atal batzuekin lankidetzan aritzea.
- k) Hezkuntza-arloan eskuduna den sailburuordetzari laguntzea hezkuntza-sistema ebaluatzen arlo horren eskumen-eremuan, ezartzen diren prozeduren bidez.

19. artikulua. – Kudeaketa operatiboaren arloa.

1.– Eginkizun hauek izango ditu Kudeaketa operatiboaren arloak:

- a) Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroari kudeaketa operatiboan laguntzea, aldatetara egokitzeko eta erronkei erantzuteko.
- b) Datu eta informazio esanguratsuetan oinarrituta erabakiak hartzeko irizpide efizienteak ezartzen dituen kudeaketa ezartzea.
- c) Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren jarduketaren eta proiektuetan harreman ez-kausalean eta ez-linealean oinarritutako metodo kualitatibo eta erresilienteetan oinarritutako printzipioak sustatzea, aldaketei, berritasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko.
- d) Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren Urteko Kudeaketa Planaren diseinuan, ezarpenean eta doikuntzan kalitatearen eta efizientziaren balioak sustatzea,



- ziurgabetasunaren kudeaketa barne, prozesu konplexuak murriztu eta prebenitzeko xedez.
- e) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren antolaketa eta funtzionamendu orokorrari lotutako alderdiak kudeatzea.
 - f) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren prozesuen bidezko kudeaketa-sistema diseinatu, ezarri eta baliozkotzea, hobekuntza etengabea eta berrikuntzan oinarritutakoa.
 - g) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren Prestakuntza, Komunikazio eta Digitalizazio Plana kudeatzea.
 - h) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren gastuen urteko aurrekontua kudeatzea.
 - i) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentrorako atxikitako irakasleak ez diren langileen eginkizunak kudeatzea.
 - j) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko zuzendaritzari kudeaketa-kontuak bidaltzea, izapidetu ditzaten.
 - k) Zuzendaritzak emandako arauak eta jarraibideak bideratzea eta betetzen direla gainbegiratzea.
 - l) Egoitzetako eta prestakuntza-espazioetako baliabide materialak eta espazioak kudeatzea.
 - m) Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko gainerako arloekin lankidetzan aritzea, baita Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroarekin ere.
 - n) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun burutzea.

20. artikulua. – Aurrekontua, kontratazioa eta ondarea.

1.- Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak, urtero eta bere aurrekontuaren barnean, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroari esleitutako funtzioak burutzeko beharrezkoa den zuzkidura ekonomikoa kontsignatuko du.

2.- Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren funtzionamendurako beharrezkoak diren kontratuei dagokienez, zuzendaritza izango da kontratazio-organoa, betiere kontratuak txikiak badira, administrazio publikoetako kontratazioari buruzko araudiaren arabera. Era berean, zuzendaritzak izango du dagokion gastua baimentzeko eskumena.

Obra-kontratuei dagokienez, berriz, premiazko konponketa-, kontserbazio- eta mantentze-lan txikiak egiteko kontratuak izan beharko dute, dagokion profesionalak egindako proiektu teknikorik behar ez dutenak.

Gainerako kontratuak egiteko, eskaera aurkeztu beharko dio hezkuntza-arloan eskumena duen saileko kontratazio-organoari, hura baita eskuduna halako kontratazio-espeditenteak ireki eta bideratzeko.

3.- Kudeaketa zentralizatuko zerbitzu eta horniduren kontratazioa ez da zuzendariaren eskumena.

4.- Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak erabilgarri izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Ondareko zati izanik, hezkuntza-arloan eskumena duen sailera atxikita dauden eta hark eskura jarritako ondasunak.

III. KAPITULUA: LANPOSTUEN ZERRENDA ETA LANPOSTUAK BETETZEA



21. artikulua. – Lanpostuen zerrenda.

1.– Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko lanpostuen zerrenda onartzen da, eta horietan jarduteko eskatzen diren betekizunak adierazten dira, bai eta gainerako ezaugarriak ere, dekretu honen II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.– Egungo Berritzeguneetako karrerako funtzionarioak behin betiko integratuko dira Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko lanpostuetan, giza baliabideak berresleitzeko prozeduraren bidez. Lanpostuen berresleipen hori dekretu honen I. eranskinean jasota dago.

22. artikulua. – Lanpostuak betetzea eta Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko Balorazio Batzorde Iraunkorra.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 21eko 4/2023 Legegintzako Dekretuaren 33. artikuluan ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetako langileentzat ezarritakoaren arabera arautuko da Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko langileen hautaketa eta haien behin-behineko eta behin betiko atxikipena.

2.– Balorazio Batzorde Iraunkor bat sortu da, Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko lanpostuak betetzeko merezimenduak baloratzeko, bai eta behin-behineko atxikipena berritzeko eta atxikipen mugagabea lortzeko egindako lana baloratzeko ere.

3.– Balorazio Batzorde Iraunkorra hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuordetzari atxikitako kide anitzeko organoa da, aurreko atalean adierazitako helburuak eta eginkizunak betetzeko. Batzordeburuak, lehendakariordeak, batzordekide batek eta idazkariak osatuko dute. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

Balorazio Batzorde Iraunkorra osatzen duten pertsonak hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularraren ebazpen bidez izendatuko dira, espezialitate-printzipioarekin bat etorritik, sartzeko titulazio berdina edo handiagoa duten irakasleen kidegoan jardunean dauden karrerako funtzionarioen artetik, baldin eta haien hautaketan edo balorazioan esku hartzen badute eta esperientzia praktikoa badute bete beharreko eginkizunetan.

Balorazio Batzorde Iraunkorra izendatzean, ordezkioak izendatuko dira, eta trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatuko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena). Horretarako, lau kide edo gutxiagoko organoetan ordezkariak orekatutzat joko da bi sexuetako pertsonak ordezkariak izan daudenean.

4.– Balorazio Batzorde Iraunkorreko kideek ez dute parte hartuko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailburuordetzari jakinarazi beharko diote abstentzioa eragin duen arrazoia, dokumentu bidez justifikatuz.

Halaber, interesdunek Balorazio Batzorde Iraunkorreko kideak ezetsi ahal izango dituzte sailburuordetza berean, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen



bada. Ondorio horietarako, Balorazio Batzorde Iraunkorra osatzen duten pertsonen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Balorazio Batzorde Iraunkorreko kideak izendatu dituen organoak abstentzioa edo errekusazioa onartzen badu, ordezkoak jardungo du.

5.– Balorazio Batzorde Iraunkorrek lanpostuak betetzeko, behin-behineko atxikipena berritzeko eta behin-betikoa lortzeko balorazio-eginkizunak beteko ditu, hezkuntzaren arloan eskumena duen saileko titularraren agindu bidez araututako irizpideen eta prozeduraren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 21eko 4/2023 Legegintzako Dekretuaren 33. artikuluan eta artikuluhonetan ezarritakoari jarraikiz.

6.– Behin-behineko atxikipenean egindako lana baloratzeko, agindu horrek ezarriko ditu Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren jardura planifikatzeko eta antolatzeko tresnekin lotuta egon beharko duten balorazio-erreferenteak, eta agindu horretan ezarritako irizpide objektiboak kontuan hartuta egingo da.

Behin-behineko atxikipenean egindako lanaren balorazioa urtero egin ahal izango da, aipatutako erreferente eta irizpideen arabera, eta balorazio hori kontuan hartuko da hiru urteko eta sei urteko balorazioetan.

Urteko balorazioa borondatezkoa da baloratutako lana egiten duten langileentzat, eta ez du ondorio kaltegarririk izango behin-behineko atxikipena berritzeko hiru urteko epea eta behin-betiko atxikipenerako sei urteko epea igaro arte.

IV. KAPITULUA: PROFIL KONPETENTZIALA, AHOIKULARIEN PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA

23. artikulua. – Aholkularien profil kompetentziala.

1.– Aholkulariek kompetentzia hauek izan behar dituzte:

- a) Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistema, laguntza-zerbitzuak eta hezkuntza-arloan eskuduna den sailaren egitura ezagutzea, bai eta horien arau-esparruak ere.
- b) Beren lan-arloko metodologia eta didaktika espezifikoen ezagutza aditua.
- c) Plangintzarako eta dinamizaziorako gaitasuna; izan ere, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztien parte-hartze aktiboa ahalbidetzen duten tresnak dira.
- d) Bere esku-hartze eremuko berrikuntza-proiektuak sortu, diseinatu eta garatzeko gaitasuna.
- e) Talde-lanean jarduteko gaitasuna.
- f) Irakasleak hezkuntzari lotutako ikerketarako motibatze gaitasuna, irakats jardunari eta autoprestakuntzaren, prestakuntzaren eta hezkuntza-proiektuetan parte hartzearen bidezko etengabeko hobekuntzari dagokienez.
- g) Ezagutza eraikitze gaitasuna, negoziazioaren eta laguntzaren bidez, hezkuntza-jardunari buruzko hausnarketatik abiatuta; eta ezagutza hori irakasleei helarazteko gaitasuna.
- h) Beren eginkizunak modalitate presentzialean, erdipresentzialean edo urrutikoan garatzeko trebetasuna, honako hauetan zuzenean parte hartuta: ikastaro presentzialak, erdipresentzialak



eta lineakoak; materialen prestakuntza; hitzaldiak eta tutoretza.

- i) Proiektuen buru izateko gaitasuna, metodologia arinak aplikatuz, lantaldeko kideak koordinatuz eta gidatuz helburuei eta zaintza- eta ikerketa-jarduerei dagokienez, eta, batez ere, erakundeen, bazkideen eta inplikaturako bestelako eragileen arteko harremanen koordinazioaren buru izatea.
- j) Entitateen eta ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzeko gaitasuna, ezagutzaren trukea sustatuz.
- k) Plangintza estrategikoak eta urteko planak egiteko gaitasuna.
- l) Esku-hartzeko bere esparruko protokoloak, tresnak eta material didaktikokoak eta curriculumari lotutakoak prestatzeko gaitasuna.
- m) Beren eginkizunak betetzeko leku batetik bestera mugitzeko prest izatea.

2.– Aholkulariaren profila definitzeak ez du esan nahi aholkularitza-lanak haren ezagutza-esparruan edo sarbideko etapan soilik gauzatu beharko dituenik.

24. artikulua. – Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko profesionalen prestakuntza eta eguneratzea.

1.– Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren zuzendaritzari dagokio Prestakuntza Plan bat sustatzea, Urteko Kudeaketa Planean txertatuko dena.

2.– Prestakuntza Planean hainbat motatako prestakuntza-ekintzak jasoko dira:

- a) Langile berrien hasierako prestakuntzarako ekintzak. Halakoak harrera-planetan aurreikusiko dira. Hasierako prestakuntza hori osatzeko, lan-prozesuak eta jardunbide egoki partekatuak ikastea erraztuko duen mentorizazio-programa bat gauzatu da.
- b) Konpetentzia profesionalak finkatzea sustatzeko ekintzak. Mota horretako ekintzen barruan, jarduera profesionalaren garapenarekin lotutako alderdi teorikoak barnean hartuko dituzten hainbat prestakuntza-modalitate eskainiko dira, baita bestelako jarduera praktikoa batzuk ere.
- c) Era berean, modu sistematikoan jorratu dira hezkuntza-arloko aholkularitza eta esku-hartzea bateratzera eta eztabaidatzera bideratutako ekintzak, baita jardunbide egoki partekatuak garatzera bideratutakoak ere. Berdinen arteko ikaskuntza eta garapen profesionala jarduketa-protokoloen eta lan-prozesuen parte izango dira.

25. artikulua. – Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren ebaluazioa.

1.– Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroak UKPa egitean, jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat ezarriko du proposaturako helburuak noraino bete diren zehazteko eta jardueren emaitzak baloratzeko. Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren jardueretan adierazle batzuk hartuko dira kontuan emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

2.– Barneko ebaluaziorako sistemez gain, ezartzen diren kanpoko ebaluazio- eta azterketa-prozesuen mende egongo da Inklusioa, Bizikidetzak eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa.



LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA – Berritzeguneei eta Berritzegune Nagusiari buruzko erreferentziak.

Indarreko araudiak Berritzeguneak eta Berritzegune Nagusia aipatzen dituenean, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaz ari dela joko da, baldin eta aipamenak zentro horri esleitutako eginkizunei buruzkoak badira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Kontratu txikiak.

Horren bidez aldatzen da Bigarren Xedapen Gehigarria. – Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren kontratu txikiak. Honela geratzen da:

Kontratu txikiei dagokienez, organo hauen arduradunei dagokie –euren eremu funtzionalean eta euren lurraldean– indarreko araudian kontratu txiki gisa tipifikatuta dauden eta euren funtzionamendurako beharrezko diren kontratuak kontratatzea, eta gastua baimentzea eta onartzea, ez badira kudeaketa zentralizatukoak, beste organo batzuen eskumenekoak, edota ez badute eskatzen fakultatibo eskudun batek eginiko proiektu teknikorik:

- *Lurralde-ordezkaritzak:*
- *Ikastetxeen ekonomia- eta finantza-kudeaketaren araudian aurreikusitakoak.*
- *Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (TKNIKA), abenduaren 1eko 222/2015 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.*
- *Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa 2024ko xxxaren xxx(e)ko Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.*
- *Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa 2024ko xxxaren xxx(e)ko Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.*
- *Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (EEI).*
- *Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK).*
- *Euskadiko Eskola Kontseilua.*
- *Unibertsitatez kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI).*

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Soldata-osagarriak.

1.- Dekretu honen II. eranskinean jasotako lanpostuak lortzen dituzten pertsona guztiek berariazko osagarri gehigarri bat jasoko dute, beren lanpostuari dagokiona:

LANPOSTUA	BERARIAZKO OSAGARRI GEHIGARRI (URTEKO ZENBATEKOA EUROTAN)
ZUZENDARIA	10.491,88
ARLOKO ARDURADUNAK	7.811,86
KOORDINATZAILEA	6.062,84
AHOLKULARIAK	5.300,82



2.- A2 kidegotik sartzen diren funtzionarioen ordainsariak dekretu honen II. eranskinean jasotako lanpostuekin parekatzeko, osagarri pertsonal iragankorra gaituko da, baldin eta egiaztatzen badute doktorego-titulua, unibertsitate-masterra, unibertsitate-gradua edo titulu baliokidea (lizentziatura, ingeniari, arkitektura), Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan ezarritako 3 MECES kualifikazio-maila lortzea ahalbidetzen duena.

3.- Urteko zenbateko oso horiek hilero banatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2024 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen 19. artikuluan arautzen denari jarraikiz.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Lanaldia.

Beronen bidez aldatzen da uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko hitzarmena onartzeko berau) Lanaldiari buruz 33. artikulua 3. a) letran zehaztutakoa; eta honela idatzita geratzen da:

Zentroko langileek bete beharreko lanaldia 1.283 ordukoa (202 egun) izango da urtean. Lanaldia goizez eta arratsaldean izango da, ekainetik irailera eta urte osoko ostiraletan izan ezik; kasu horietan goizeko lanaldi jarraitua izango da. Zentroko kide guztien ordutegiak behar besteko malgutasunez zehaztuko dira; egunean 6 ordu banatu beharko dira 09:00etatik 19:00etara bitartean, eta ordutegi horretan ezingo da beste jarduerak ordaindurik egin.

Urtero Zentroaren egutegia eta ordutegia zehaztuko dira, hezkuntza-arloko sail eskudunean hezkuntza-inklusioaren eta aniztasunaren arloko eskumena duen zuzendaritzako arduradunaren ebazpenaren bidez.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroak.

Beronen bidez aldatzen da Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroak sortzen dituen abenduaren 26ko 266/2006 Dekretuaren 5. artikulua; eta honela idatzita geratzen da:

5. artikulua.- Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroak, organikoki, dagokien Hezkuntzako lurralde-ordetzkaritzaren mende egongo dira, eta, funtzionalki, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren mende, hargatik eragotzi gabe Hezkuntzako Ikuskaritzari dagozkion gainbegiratze-eginkizunak.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide-zentroak.



Beronen bidez aldatzen da Ikusteko Urritasuna duten Ikasleak Hezkuntzan barne hartzeko Baliabidetegiak sortzen dituen martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren 6. artikulua; eta honela idatzita geratzen da:

6. artikulua.– Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide-zentroak, organikoki, dagokien Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzaren mende egongo dira, eta, funtzionalki, Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren mende, hargatik eragotzi gabe Hezkuntzako Ikuskaritzari dagozkion gainbegiratze-eginkizunak.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA – Funts publikoen bitartez finantzatzen ez diren zentroak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren esparruan funts publikoen bitartez finantzatzen ez diren zentroak normalizazio eta eskola-integrazio printzipioen mende egongo dira lege horrek II. Tituluko I. Kapituluko Lehenengo Atalean xedatutakoaren esparruan; abenduaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 Legeak 88. artikuluan aipatzen dituen hezkuntzako laguntza-zerbitzuen aholkularitza eta kolaborazioa jaso ahal izango dute, eta, dagokionaren arabera, beharrezkoak diren curriculumaren aldaketak egin edo proposatuko dituzte, bat etorri deketu hau eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren etapetan curriculumak onartzeko dekretuak betetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA – Zenbait arauen indarraldia.

Zenbait arlori buruzko erregulazioari dagokionez, geroko erregelamenduzko xedapenetara igortzen du dekretu honek. Bada, xedapen horiek ematen ez diren bitartean, dekretu hau indarrean jarri aurretik indarrean zeuden maila bereko arauak aplikatuko dira kasu bakoitzean, betiere dekretuan xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA – Zenbait administrazio-egoeraren indarraldia.

Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroko lanpostu hutsak betetzeko deialdia argitaratu arte, gaur egun Berritzeguneetan eta Berritzegune Nagusian lan egiten duten pertsonak eginkizun horiek betetzen jarraituko dute, egungo administrazio-egoerari eutsiz.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA – Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) 40/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duena.
- b) 41/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Berritzeguneetako lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- c) 42/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Berritzeguneetako lanpostuen zerrendako aldaketek zer langileri eragingo dien zehazteko irizpideak ezartzen dituena, eta Berritzeguneetan berriz atxikitze prozesua arautzen duena.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA – Garatzeko eta betearazteko eskumena.**

Hezkuntza-arloan eskuduna den sailaren titularrari baimena ematen zaio dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA – Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, XXXXko XXaren X(e)(a)n.

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL.

Hezkuntzako sailburua,

MARIA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ZIRIBORROA



I. ERANSKINA

BERRITZEGUNE NAGUSIKO ETA BERRITZEGUNEETAKO BEHIN BETIKO LANGILEEN BERRESLEIPENA INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROKO LANPOSTUETAN

BEHIN BETIKO LANGILEEK BERRITZEGUNE NAGUSIAN ETA ZONAKO BERRITZEGUNEETAN OKUPATUTAKO LANPOSTUAK					LANGILE HORIEN BERRESLEIPENA INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROKO LANPOSTUETAN
Lanpostua	Hizkuntza-eskakizuna	Titulazioa	Esperientzia	Taldea	
BIZKAIA. B01 BERRITZEGUNEA. Hezkuntza-premia berezien aholkularitza. Garapenaren nahasmendu orokorren programa.	2. HE indarrean	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A1/A2	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia. Espezialitatea: Garapen intelektualaren nahasmenduak (GIN) eta autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN). Egoitza: Bilbo (Bizkaia).
BIZKAIA. B02 BERRITZEGUNEA. Hezkuntza-premia berezien aholkularitza. Gizarteratzea programa.	2. HE indarrean	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A1/A2	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia. Espezialitatea: Portaeraren eta garapen pertsonalaren nahasmenduak. Egoitza: Bilbo (Bizkaia)
BIZKAIA. B04 BERRITZEGUNEA. Hezkuntza-premia berezien aholkularitza. Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena programa.	2. HE indarrean	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A1/A2	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia. Espezialitatea: Irisgarritasun sentsoriala eta garapen motorraren nahasmenduak eta horiei lotutako afekzio medikoak. Egoitza: Bilbo (Bizkaia).
BIZKAIA. B08 BERRITZEGUNEA. Hezkuntza-premia berezien aholkularitza. Ikasketa-gaitasunak garatzeko programa.	2. HE indarrean	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A1/A2	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia. Espezialitatea: Garapen intelektualaren nahasmenduak (GIN) eta autismoaren espektroko nahasmenduak (AEN). Egoitza: Leioa (Bizkaia).
BERRITZEGUNEA: B08. Hezkuntza-premia berezien aholkularitza. Ikasketa-gaitasunak garatzeko programa.	2. HE indarrean	Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia	Hezkuntza Berezian: 3 urte	A1/A2	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia. Espezialitatea: Irisgarritasun sentsoriala eta garapen motorraren nahasmenduak eta horiei lotutako afekzio medikoak. Egoitza: Leioa (Bizkaia)



II. ERANSKINA

INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROKO LANPOSTUEN ZERRENDA

BILBOKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	1	Hezkuntza inklusioa, bizikidetza eta aniztasunaren kudeaketa garatzeko zentroko zuzendaria.	749,42 € euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, unibertsitateko gradua edo horien titulu baliokidea (lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura), zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		Bilbao
	1	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko arduraduna.	577,99 euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		Bilbao
	1	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko arduraduna.	577,99 euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		Bilbao
	1	Ikasketa eta programa integratuen arloko arduraduna.	577,99 euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen		Bilbao



							Lehen Hezkuntzako irakasleak			(Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		
1	Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloaren arduraduna.	577,99 euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		Bilbao	
1	Kudeaketa operatiboaren arloko arduraduna.	577,99 euro hileko	Izendapen askea	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).		Bilbao	
2	Ikasketa eta programa integratuen arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Bilbao	
10	Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila). Diplomatura (Irakasletza, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza).	Gutxienez 3 urteko esperientzia bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan edo hezkuntza-laguntzako zerbitzuetako aholkulari gisa.	Bilbao	



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

	1	Kudeaketa aurreratuko aholkulari espezialista.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia kalitatea kudeatzeko sistemetako arduradun gisa.	Bilbao
	1	Baliabideen kudeaketako aholkulari aditua.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia zuzendaritza-eginkizunetan edo antzekoetan.	Bilbao
	1	Komunikazio eta digitalizazio- aholkulari aditua.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia digitalizazioaren esparruan.	Bilbao
	9	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berriazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Bilbao
	5	Inklusiorako laguntza espezifikoko arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berriazko	Bilbao



							Lehen Hezkuntzako irakasleak			Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	
--	--	--	--	--	--	--	------------------------------	--	--	--	---	--

LEIOAKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	6	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berariazko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Leioa
	3	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berariazko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Leioa

BARAKALDOKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	9	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako	Barakaldo



							Lehen Hezkuntzako irakasleak			(Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	berriazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	
	4	Inklusiorako laguntza espezifikorearen arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berriazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Barakaldo

DURANGOKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berriazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	7	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berriazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Durango
	4	Inklusiorako laguntza espezifikorearen arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berriazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berriazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Durango



GASTEIZKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	10	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntz-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Vitoria-Gasteiz
	6	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntz-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Vitoria-Gasteiz
	5	Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila). Diplomatura (Irakasletza, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza).	Gutxienez 3 urteko esperientzia bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan.	Vitoria-Gasteiz



DONOSTIAKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	14	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Donostia
	8	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntza-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Donostia
	5	Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan berritzeko arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, lizentziatura, ingeniariaritzaren, arkitektura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila). Diplomatura (Irakasletza, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza).	Gutxienez 3 urteko esperientzia bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruan.	Donostia



ZARAUZKO EGOITZA

Lanpostuaren kodea	Dotazio zenbakia	Lanpostuaren izena	Berariazko osagarria	Betetzeko modua	Dedikazio erregimena (%)	Lanposturako betekizun orokorrak				Betekizun espezifikoak		Lantokia
						Irakasle funtzionarioa		Hizkuntza eskakizuna		Titulazioa	Esperientzia	
						Taldea	Kidegoa	Maila	Derrigortasuna			
	5	Inklusioari laguntzeko arlo orokorreko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntz-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Zarautz
	3	Inklusiorako laguntza espezifikoaren arloko aholkularia.	378,63 euro hileko	Berariazko lehiaketa	100	A1/A2	Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzako irakasleak	C1	Betea	Doktoregoko titulua, unibertsitateko masterra, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogiako lizentziatura edo horien titulu baliokidea, zeinaren bidez 3 MECES kualifikazio-maila lor daitekeen (Goi mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua - MECES ezartzen duen uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kualifikazio-maila).	Gutxienez 3 urteko esperientzia hezkuntz-laguntzako berariazko premien arloko aholkulari edo orientatzaile gisa.	Zarautz



III. ERANSKINA

IKASTETXEEN ZONAKATZEA

ARABA

A1 zona. GASTEIZKO EGOITZA

Geografia-eremua: Vitoria-Gasteiz Iparraldea, Vitoria-Gasteiz Hegoaldea, Añana, Armiñón, Arraia-Maeztu, Berantevilla, Bernedo Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea, Harana, Iruña Oka, Kanpezu, Kuartango, Lagran, Lantaron, Urizaharra, Zambrana, Bastida, Bilar, Ekora, Eltziego, Guardia, Kripan, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego, Villabuena, Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio, Okondo, Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia, Agurain, Asparrena, Barrundia, Elburgo / Burgelu, Donemiliaga, Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Zalduondo.

BIZKAIA

B1 zona. DURANGOKO EGOITZA

Geografia-eremua: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Otxandio, Ubide, Zaldibar, Amoroto, Aulestia, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Ondarroa, Ziortza-Bolibar, Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Lemoa, Zeanuri, Zeberio.

B2 zona. LEIOAKO EGOITZA

Geografia-eremua: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri, Mungia, Meñaka, Morga, Getxo, Gorliz, Lemoiz, Barrika, Plentzia, Berango, Sopela, Urduliz, Derio, Larrabetzu, Lezama, Sondika, Zamudio, Loiu, Erandio, Leioa.

B3 zona. BILBOKO EGOITZA

Geografia-eremua: Bilbo (Abando, Basurtu, Zorrotza, Deustu, Errekalde, Begoña, Ibaiondo, Otxarkoaga-Txurdinaga, Uribarri), Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo.

B4 zona. BARAKALDOKO EGOITZA

Geografia-eremua: Alonsotegi, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Barakaldo, Abanto Zierbena, Galdames, Muskiz, Ortuella, Trapagaran, Zierbena, Artzentales, Balmaseda, Karrantza, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla.

GIPUZKOA

1. zona. G1 DONOSTIAKO EGOITZA

Geografia-eremua: Donostia, Hondarribia, Irun, Errenteria, Oiartzun, Lezo, Pasaia, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz,



Elduaien, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Gaztelu, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Aizarnazabal, Zestoa, Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia.

2. zona. G2 ZARAUZKO EGOITZA

Geografia-eremua: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze, Errezil, Beizama, Azkoitia, Azpeitia, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itxaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga.

ZIRIBORROA